

**756/2025 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestiboko (Pankreako Atala) Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.**

#### AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen abenduaren 24ko 3000/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Kirurgia Orokorra eta Aparatu digestiboko (Pankreako Atala) Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko otsailaren 20ko EHAA 12 zk. eta 2025eko otsailaren 5eko BOE 31 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko otsailaren 26an amaitu zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Kirurgia Orokorra eta Aparatu digestiboko (Pankreako Atala) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2025eko otsailaren 28a



Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendaritza gerentzia,  
María Luz Marqués González



ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

**KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOKO (PANKREAKO ATALA)  
ATAL SANITARIOKO BURUA**

**BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK**

Onartuak:

D. Raúl Saa Álvarez jn.

Baztertuak:

Inor ez